2021EKO EGUBERRI-KANPAINAN KONTXAKO BADIAN ARGI- ETA SOINU-IKUSKIZUN BAT PRODUZITU ETA GAUZATZEKO ZERBITZUAK ETA, HALABER, EUSKARRI TEKNIKORAKO DAGOZKION EKIPAMENDU ETA ZERBITZUAK ALOKAIRUAN HORNITZEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Gabonetan Donostiako Kontxako badian egingo den argi- eta soinu-ikuskizuna produzitzean datza zerbitzuaren prestazioa.

Enpresa esleipendunak zerbitzu hauek eskaini beharko ditu, besteak beste:

1. **Ikuskizunaren diseinu orokorra, produkzioa eta muntatze- eta desmuntatze-lanak**
2. **Ikuskizuna aurrera eramatea/gauzatzea**
3. **Euskarri teknikoa**

Zerbitzu horietako bakoitza aurrera eramateko, lan zehatz hauek egin beharko dira:

1. Ikuskizunaren diseinu orokorra, produkzioa eta muntatze- eta desmuntatze-lanak

Lan hori aurrera eramateko, lizitazio-faseko “Memoria artistikoa” atalean aurkezturiko proposamena eraman beharko du aurrera enpresa esleipendunak.

Horretarako, zerbitzua abian jartzeko lehenengo bilera egingo da Donostiako Sustapenaren eta enpresa esleipendunaren artean. Bilera horretan, enpresa esleipendunak xehe-mehe azaldu beharko dio Donostiako Sustapenari nola eraman asmo duen aurrera zerbitzua. Donostiako Sustapenak, bere aldetik, zerbitzua aurrera eramateko informazio operatiboa jakinaraziko dio enpresa esleipendunari (baimenen kudeaketak, harremanetarako pertsonak, etab.). Enpresa esleipendunak 5 laneguneko epea izango du “Memoria artistikoari” bi aldeen artean egindako egokitzapenak aurrera eramateko.

Laburpen moduan, ikuskizunaren sorkuntza, garapena eta gauzatzea proiektu orokor batean bildu beharko du enpresa esleipendunak, eta, horrekin batera, ikuskizunaren ikuspegi artistikoa eta teknikoa zehaztu beharko du.

Halaber, ikuskizuna muntatu eta desmuntatzeko lanak eraman beharko ditu aurrera, aurrerago adierazitako moduan eta ikuskizuna aurrera eramateko udaleko departamentuek emandako baimenetan berariaz adierazitako baldintzetan.

Zehazki, jarraibide hauek betez egin behar da lan hori:

Ikuskizunaren tipologia:

Produzitu beharreko ikuskizuna Kontxako badian egingo da, Santa Klara uharteak, badiak berak eta Kontxako barandak ematen dituzten aukerez baliatuz.

Donostiako Gabonetako kanpainaren barruko ikuskizun hori aitzindaria eta berritzailea izango da gure hirian nahiz estatu mailan eta nazioartean. Herritarrak eta turistak erakarriko ditu, eta eragin positiboa izango du gure hiriko jarduera ekonomikoan (bereziki, ostalaritzan, merkataritzan eta turismoan).

Ikuskizunean, argi-sortekin argiztatu beharko da badia, musikaz lagunduta, Kontxako badiaren gainean maskor bat irudikatuz. Beraz, Kontxako badia aprobetxatu beharko da proiekzioaren agertoki gisa.

Aldi berean, ikuskizun dinamikoa izan beharko du, gure hiriaren balioak jasotzen dituena, atsegina, laburra eta Kontxako hondartzari protagonismoa ematen diona, argiarekin eta soinuarekin jolastuz, publikoarengan (haurrak nahiz helduak) esperientzia bat sorrarazteko.

Ikuskizunaren produkzioa:

Lizitazio fasean aurkeztutako 6 sintonietatik ikuskizuna osatuko duten hiruak aukeratu beharko ditu Donostiako Sustapenak.

Enpresa lizitatzaileak ikuskizunaren iraupen eta dinamismora egokitu beharko ditu aukeratutako sintoniak, eta horiek erreproduzitzeko beharrezkoak diren kudeaketak egin beharko ditu. Halaber, musika erreproduzitzeko, enpresa esleipendunak beharrezkoak diren kudeaketak egin beharko ditu SGAErekin, beharrezkoa izanez gero.

Esandakoari jarraiki, egunean 4 emanaldi izango dituen ikuskizuna produzitu beharko da. Lau horietatik hiru desberdinak izan beharko dira (bertsio bereiziak) argi- eta soinu-efektuei dagokienez.

Donostiako Sustapenak bere gain hartuko ditu sintonia horiek izan ditzaketen egile-eskubideen kostuak.

Logistika eta langileak:

Enpresa esleipendunak materiala kargatu, garraiatu eta adierazitako lekuan deskargatu eta muntatzeko lanak egin beharko ditu. Beharrezkoak diren bitartekoak erabili beharko ditu garraio-lanetarako. Halaber, beharrezko den langile kopurua atxikitu beharko du lan horietarako, eta bere gain hartu beharko ditu langile horien joan-etorrien gastuak eta dietak (baldin badaude).

Ekipamenduaren alokairua, garraioa eta instalazioa:

Diseinatutako ikuskizuna eta hobekuntza gisa eskainitako gehigarria aurrera eramateko beharrezkoa den materiala jarri beharko du enpresa esleipendunak. Horretarako, bere gain hartuko ditu elementuen instalazio-, muntatze- eta euskarri-lanak.

Zerbitzua aurrera eramateko materialek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte, gutxienez:

1. **Santa Klara uhartean kokatutako laser-proiekzioko sistema, Kontxako badian eta pasealekuan efektuak proiektatu eta sortzeko, erreferentziazko diseinuaren arabera: ARC 30 RGB 30W full color motako 13 laser-proiektagailu DAC FB4ekin.**

   Proiektoreen ezaugarri teknikoak:

   Mota: Diodo erdieroalea & OPSL full-colour TGB laser-proiektagailua

   Egokitasuna: kanpokoa

   Diodo erdieroalea & OPSL full-colour TGB laser-proiektagailua

   Kontrol-sistema: FB4-SK (Ethernet, ArtNet, DMX, ILDA/PC, Lighting Console edo Autoplay.

   Potentzia (w): 28000

   R-G-B (mW): 7300 – 10000-1500

   Uhin-luzerak (nm, +- 5nm): 637 – 532 OPSL – 460+445

   Argi-sortaren tamaina (mm): 6 x 6

   Argi-sortaren dibergentzia (mrad): 0,89

   Modulazio mota (kHz): 100 analogoa

2. **Santa Klara uhartearen eta Kontxako ordularien arteko komunikazio-sistema irrati-lotura bidez puntuz puntu.**

3. **Goboak proiektatzeko eta erreferentziazko diseinuaren araberako efektuak sortzeko argiztapen-sistema Kontxako ordularien eremuan, bakoitza bere euskarri-egiturarekin eta aire zabalean babesteko sistemarekin: 8 Megapointe proiektagailu robotizatu edo antzekoak.**

   Proiektagailuen ezaugarri teknikoak:

   - Mota: “beam, spot, wash” buru mugikorra, 470W-ko argi-sorta paralelo bizi eta zorrotzarekin.
   - Efektua: 6 prisma 2 gurpiletan kokatuta 12 argi-sorta eta lore-efektua sortzeko.

- Lumenak: 20375
- Zoom eta fokuratzeko motorizatua
- CMY
- Koloretako gurpila (13 iragazki diakroiko + zuria)
- 9 gobo birakariko 1 gurpil
- 14 gobo estatikoko 1 gurpil
- 1 animazio-gurpil
- Frost
- Intentsitate-erregulagadorea: 0-100%
- Urruneko "Hot-Spot" kontrola
- Euriaren kontrako sistema proiektagailuetarako:
    - Mota: Airdome (80cm-ko diametroa)
    - Sarrera: Powercon True1, 16ª, 208-230v
    - Irteera: Powercon true1, 208-230v
- 1XGRAND MA2 LIGHT kontrol-sistema:
    - Denbora errealeko kontrola saioko 65536 parametrorako gehienez, MA NPUrekin konexioan (256 DMXen baliokidea)
    - 4,096 HTP/LTP
    - 6 DMX output
    - Ukipen-pantaila
    - Teklatuaren kaxoi integratua
    - Etengabeko elikadura-sistema integratua (UPS)
    - 2 etherCON konektore, 5 USB konektore 2.0
    - Tekla isilak (klik gabe) banakako atzerako argiztapen erregulagarriarekin

4. **Kontxako pasealekuko soinu-erreprodukziorako sistema (udaletxetik Loretopearaino):**

   Ezaugarri teknikoak:

- Instalatu beharreko unitateak: 53 unitate
- Soinu-sistemak 2,5 metroko altueran instalatu beharko dira, gutxienez, soinua ondo hedatu dadin.
- Aire zabaleko ekipoak
- Kaxa akustikoa 20 Wko irteera-potentziarekin
- 100Vko lineako tentsioa
- 92dBko sentikortasuna(M/1W)
- Anplifikazio-sistema:
    - PA 4500L anplifikadorea edo antzekoa, 4 kanalekin (500 Wkoa bakoitza, D mota)
    - Funtzionamendua 70/100Vn (hautagarria)
    - Irteerako potentzia (70/100V): 4x 500W
    - Bolumen-kontrola kanal bakoitzean
    - Dimentsioak: 1 HU rack 1922
    - Linea kommutatua, D motako anplifikadorea

Zerbitzuaren xedea ahalik eta modurik onenean eskaintzeko, enpresa esleipendunak, eskainitako unitate gehigarriez gain, stockean izan beharko du materiala. Zehazki, kopuru hauek izan beharko ditu:<0}

- Gobo proiektorea: gutxienez 1 unitate stockean.
- Laser proiektoreak: gutxienez 2 unitate stockean.
- Soinu-sistema: gutxienez 2 unitate stockean.

Ekipoen segurtasunari dagokionez, ekipamenduak dauden eremu hesituan sartzen den jendea detektatzen duten sentsoreak instalatzea eskainiko dio Donostiako Sustapenak enpresa esleipendunari. Sentsoreek mugimendua detektatzen badute espazio horretan, alerta bidaltzen dute segurtasun-zentral batera. Alarmaren abisu bat jasoz gero, enpresa esleipendunak erantzun beharko dio intzidentziari, dagozkion kudeaketak eginez.

Ikuskizuna egiteko korronte-harguneari dagokionez, enpresa esleipendunak baliozkotu egin beharko du gaur egun Santa Klara uhartean dagoen instalazio elektrikoaren erabilgarritasuna. Instalatutakoa baino potentzia handiagoa behar bada, enpresa esleipendunak bere bitarteko propioak jarri beharko ditu ikuskizuna aurrera eramateko.

Segurtasun- eta osasun-plana:

Kontratuak xede dituen lanak aurrera eramateko, honako arau hauek bete beharko ditu enpresa esleipendunak: Laneko Arriskuen Prebentziorako 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta hura garatzen duten errege-dekretuak; bereziki, 1997ko urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretua, zeinaren bidez, eraikuntza-lanetako gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzei buruzko arauak ezartzen baitira; eta araudi hori osatzen duen eta aplikagarria izan daitekeen beste edozein xedapen.

Halaber, enpresa esleipendunak Donostiako Sustapenaren eskura jarri beharko du, Donostiako Sustapenaren ustez, langileen segurtasuna eta osasuna bermatzeko eta kontratu honek xede dituen atal guztiekin lotutako laneko arriskuen prebentziorako neurri oro aurrea eramateko beharrezko jotako dokumentazio eta informazio guztia. Edozein kasutan, lan horiek aurrera eramaten hasteko, aurretiazko baimen espresua eman beharko du Donostiako Sustapenak.

Baimenetarako dokumentazioa:

Enpresa esleipendunak, Donostiako Sustapenaren jarraibideak betez, ikuskizuna aurrera eramango duten organismoei baimenak eskatzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia prestatu eta bidali beharko dio Donostiako Sustapenari: enpresak erabiltzen dituen ibilgailuen aseguru-poliza, proiektoreen eta erabiliko den gainerako materialaren fitxa teknikoak, ekipamenduaren kokapen-planoa, etab.

Kontratatutako alokairu-epearen ondoren ekipoak eramatea:

Zerbitzuaren prestazioa amaitu ondoren, gehienez 2 laneguneko epean eraman beharko da erabilitako ekipamendua.

2.Ikusizuna egitea/aurrera eramatea:

Enpresa esleipendunak adierazitako espazioan eraman beharko du aurrera ikuskizuna, beharrezko diren bitarteko guztiekin eta jarraibide hauen arabera:

Egutegia, emanaldiak eta ordutegia:

Ikuskizuna egunero eskainiko da 2021/12/19tik 2021/12/31ra bitartean (13 egunez). Epe hori luzatu ahal izango da, bertan behera geratutako emanaldien arabera. Dena den, epea 2022ko urtarrilaren 6ra arte luzatu ahal izango da, gehienez.

Egunean, ikuskizunaren 4 emanaldi eskainiko dira. Emanaldi bakoitzak 3 minutuko iraupena izan beharko du gutxienez, eta 6 minutukoa gehienez. Beraz, 52 emanaldi eskainiko dira guztira.

Hau izango da emanaldien ordutegia: 18:30- 19:15- 20:00- 20:45. Salbuespenez, abenduaren 31n, emanaldi bakarra programatu ahal izango da 24:00erako, egunero eskainiko diren lau emanaldiak ordezkatuko dituena.

Emanalditik emanaldirako itxaronaldiak sintonia eta argi-joko batzuekin girotu beharko dira, ikusleen interesa mantentzeko.

Eguraldi txarra bada edo pertsonen segurtasunari edo osasunari eragin diezaiokeen beste edozein inguruabar dela medio, emanaldi guztien edo batzuen programazioa aldatu ahal izango du Donostiako Sustapenak, enpresa esleipendunarekin adostasun batera iritsi ondoren. Kasu horietan, ikuskizuna egiten den eguneko 15:00ak baino lehen jakinarazi beharko zaio enpresa esleipendunari emanaldiak bertan behera utziko direla.

Donostiako Sustapenak beste data batzuk proposatu ahal izango ditu aipaturiko arrazoiengatik bertan behera geratutako emanaldiak egiteko. Hori gertatuz gero, muntatze- eta desmuntatze-lanetarako datak ere aldatu egin beharko dira.

Ez dira ordainduko bertan behera geratutako emanaldiak.

Donostiako Sustapenak, aurrez enpresa esleipendunarekin adostu ondoren, eskubidea izango du egutegi eta/edo ordutegi hori aldatzeko.

3. Zerbitzuaren antolaketa orokorra:

Zerbitzuari dagozkion bi lanak aurrera eramateko orduan, jarraibide hauek izan beharko dira kontuan:

Alokatutako ekipoen konfigurazioa, euskarri teknikoa eta mantentze-lanak:

Enpresa esleipendunak izango du ekipoen funtzionamendu onaren eta ikuskizunaren garapen egokiaren gaineko erantzukizuna. Horretarako, beharrezkoak diren mantentze-lanak, egokitzapenak edo hobekuntzak egin beharko dira (enpresa esleipendunak nahiz Donostiako Sustapenak).

Enpresa esleipendunak bere gain hartu beharko du kontratazio honek xede duen ekipamenduak izandako kalte oro. Donostiako Sustapenak inolaz ere ez ditu bere gain hartuko enpresa esleipendunak zerbitzua aurrera eramateko orduan ekipamenduan sortutako kalteak.

Enpresa esleipendunak harremanetarako pertsona bat eskaini beharko du 24 orduz, edozein gorabehera jakinarazi ahal izateko. Prestasun hori eskaini beharko da zerbitzua eskaintzen den epe osoan.

Matxuren konponketari dagokionez, enpresa esleipendunak alokatutako ekipoen euskarri

teknikoa eskaini beharko du "in situ", gutxienez, aurreikusitako erantzun-denbora maximoetan bermatuta egon daitezen.

Erantzun-denborei dagokienez, enpresa esleipendunak jarraibide hauek bete beharko ditu:

- Ekipoak hornitu, instalatu eta konfiguratzeko gehienezko denbora: enpresa esleipendunak ekipoak instalatuta izan beharko ditu ikuskizuna egiten den lehenengo eguneko 15:00ak baino lehen

- Matxurak konpontzeko gehienezko denbora: gerta daitezkeen intzidentzien aurreko erantzun-denborari dagokionez, enpresa esleipendunak bermatu behar du zehazturiko lekuan teknikari bat egongo dela, gehienez, matxura/intzidentzia identifikatzen denetik 60 minuturen barruan. Adierazitako erantzun-denbora horiek bete beharko dira, baldin eta matxura 9:00etik 23:00era arteko tartean konpondu behar bada.

Probak "in situ" egitea:

Ikuskizuna inauguratu baino 3-4 egun lehenago, enpresa esleipendunak proba bat egin beharko du, eta, horretarako, ikuskizunean erabiliko den material guztia instalatu beharko du. Proba hori 23:00etik aurrera egin beharko da, eta Donostiako Sustapeneko langileek joan beharko dute ikustera.

Bilerak:

Donostiako Sustapenak ikuskizuna aurrera eramateko egoki iritzitako adina bilera egin beharko ditu enpresa esleipendunak.

Kontratua sinatu ondoren, hasierako bilera egin beharko dute bi aldeek. Bilera horretan, enpresa esleipendunak lizitazio-fasean proposatutako ikuskizunaren lan-egutegia eta produkzioa aztertuko dira.

Enpresa esleipendunak zerbitzua eskaintzeko dituen betebeharrak:

Zerbitzua emateko orduan, betebehar hauek izango ditu enpresa esleipendunak:

- Donostiako Sustapenarekin egingo den lehenengo bileran, 24 orduz aurkitzeko moduan egongo den arduraduna zein izango den jakinaraztea (izen-abizenak eta telefonoa).

- Ikuskizuna inauguratu baino 3-4 asteko lehenago −gutxienez− plan zehatz bat aurkeztea, honako datu hauek biltzen dituena:

    - Ikuskizuna aurrera eramateko ekipamendua, materialak eta bitartekoak muntatzeko egutegia eta ordutegia.

- Udal zerbitzuek baimenei buruz emandako jarraibideak betetzea, muntatze-lanetan, ikuskizuna aurrera eraman bitartean eta desmuntatze-lanetan.

- Ikuskizuna aurrera eramateko beharrezkoa den materiala eta/edo teknikariak dauden eremuaren baldintzak zaintzea, eta, zerbitzua eskaini ondoren, eremu horien baldintzak ikuskizunaren aurretik zeuden berak izango direla bermatzea.

Zerbitzuaren prestazioaren amaiera:

Zerbitzua amaitutzat emango da azkeneko emanaldia eskaini, materiala eraman eta eremua ekipamendua instalatu aurretik zegoen baldintza beretan utzi ondoren.

Donostian, 2021eko urriaren 21ean

MARIA SOLEDAD GARMENDIA BELOQUI - 15968224Z
2021.10.26 10:19:03 +02'00'

Marisol Garmendia Beloqui
Fomento de San Sebastián, S.A. sozietateko presidenteordea